

Abertzaleon batasuna. Posible ote?

POSIBLE eta ezinbestekoa. Orain arte ezinbestekoa ametsa izan badugu, heldu da pausauk emateko ordua. Ez dugu aukerarik. Gure herriaren etorkizuna kinka larrian dugun neurrian, denon indarrak biltzea lehen egin beharra bilakatzen zaigu. Ezberdintasunen izenean elkarlana ukatzea gero ta zailago eta uler ezinagoa gertatzen zaie herri hau maite dutenei.

Jakin badakigu, aipatzen dugun batasun hori ez zaigula alderdi politikoan paktuetan finkatuko. Gure herriaren historian, indar metaketa ez da alderdi ezberdinen bateratze prozesuetan finkatu izan ia inoiz, eta gaurko egoeraren ere ez dut uste, zoritxarez, hone-lako baldintzarik dagoenik. Alegia, batasuna ez da oinarrituko, gaurkoz behintzat, HKB beste alderdi batzuekin, (demagun EA, EUE, Zutik...) egin dezakeen akordioetan. Ez gaude elkarlanean prozesuaren atarian. Baina nola ukatu bizi dugun egoera larriak esfortzuz bateratzea behartzen gaituenik? Ez al da posible eguneroko erantzunkizun konkretuen aurrean elkarlanean bideak urratzea? Ezin al ditugu urrats berriak eman? Zinez, baieztatu ezin zaizkute.

Ezberdintasun guztien gainera, hainbat alortean elkarrekin ari gaitzake. Herri mailan; udaletxeetan; erakunde herritarrek antolatutako ekitaldi kulturalak, kirol eginaldiak zein kale ekintzetan, abar etabar. Eta hori dena, noski, ukatu gabe beste zenbait instituzioetan har ditzakegun iniziatiba amankomunatuak edo Nazio mailan egin ditzakegun ekitaldi bateratuak. Bide guztiak zabaldu egin beharko lirateke. Eta zer esanik ez guri dagokigunez behintzat pausu berriak emateko prest gaudela. Baina beti ere ilusio faltsurik sortu gabe eta eguneroko lanean finkatuaz. Amets gehiegi gabe, baina praktika emankor eta baikorra bulzatuaz.

Zertan oinarrituko nukkeen aipatzen dudana batasuna? Bapatean, hainbat aukera dotozkit burura eta ideiak bor-bor sortzen zaizkit.

Oraingoz, hiru ardatz azpimarratuko nituzke. Bakarrak hiru, baina gure herriaren etorkizunerako funtsezkoak direnak eta beraz, zuta-beak:

1. *Gure ekonomia suspertzeko bidean*, elkarlana bermatu. Euskalherria, aspaldidanik ezagutu duen egoera ekonomiko larrienetakoa jasaten ari da. Azken hamar urte hauetan 100 mila lanposturik gora galdu dira. Langabezia, Espainiako Estatutuko batuz bestekoa baina dezente haundiagoa dugu, ehuneko 20 inguru edo. Eta gure herria ez bada errebelatzen eta zutik tinko jartzen, Labe Garaiak berehala itxiko dizkigute. Frantziako Estatuko industriariak, langileriak, nekazariak edo arrantza-leak beraien Gobernuaren laguntza tinkoa aurkitzen dute. Hemen inork ez gaitu defenditzen ez Bruselaren eta ez Madrilen.

Euskalherriaren etorkizun ekonomikoak jokoan dago, eta beraz, herriaren geroa zalan-tzan dugu. Gure aberastasunak defenditzeko ez ote gara gai izanen? Madriliko Gobernuak bere esku dituen hemengo ondasunak berreskuratzeko indarrak ez ote dugu? Kupoaren ordainketa zergatik ez ukatu? Ez al da hortzak erakusteko momentua heldu?

2. *Eraso erdarazaleen aurrean, Euskaldun- te plangintza zehatza bideratu*. Frankismoaren lehen urte latz haiek ezkerotik gutxitan jasan izan ditu Euskarak hain eraso bortitzak eta ongi planifikatuak. Administrazioa euskalduntzeko plangintza, oso eskasa izatek aparté, aurrerabiderik gabe aurkitzen da. Irakaskuntza mailan herri eta gurasoen eskaria moteldu eta mozteko neurriak hartzeko asmatn dabilzate. Gure lurretan entzun eta ikusten den Espainiako telebista edo irratietan, ez da euskaraz ia ezer egiten... Beraien burua zurtzeko asmoz, azken boladan hainbeste propaganda (gure milioiak erabiliaz noski) egiten ari diren Baskongadeetako Institutioek, AEK, EGUNKARIA eta beste hainbat herri-proiektu itto nahirik dihardute. Eta okerrena zera da, PSOEK euskararen aurka daraman plangintza

lotsagarriaren aurrean, ez dagoela erantzun tinko eta gogorrik. Koldarkeria da nagusi. Euskararen aldeko eguneroko langintzak bildu eta bateratu behar gaitu! Eskola Ituna eta ikastolen desagertzaren aurka indarrak bildu behar ditugu.

3. *Naziotasunaren zutabe dugun Autodeterminazio eskubidea, batasunaren oinarri eta euskarri*. Libro izan nahi duten Herri eta Nazioen aurka borroka ideologiko zabal baten aurrean aurkitzen gara. Arrazakeria eta xenofobia, Naziotasunaren aldeko mugimenduekin nahasten dituzte. Abertzaletasuna arrisku nabarmen gisa agertu nahi dute. Felipe Gonzalez, Jauregi, Buesa... asteburuero mezu berdinez dotozki.

Duela urte pare bat, Ekialdeko zenbait Estatu erdibitu edo desintegratzeko mugimendu nazionalistak egokiak ziren bitartean, ez genuen horrelakorik entzuten. Baina azken hilabete hauetan nabarmenki aldatu dute mezua, betidanik izan dutenera itzuli direlarik, naziotasunak dakarzin arriskuak azpimarratzea, alegia. Berriro ere, borroka ideologiko horren sartu beharrean gara, gure herriaren burujabetasuna, eskubide demokratikoa gisa azalduz. Inoren aurka ez doana, eta denon mesedetan duguna.

Gure auzo eta herrietan indarrak biltzea. Abertzale progresista edo ezkertiar diren emakume zein gizonekin elkarlana bultzatzea. Gure arteko zenbait mesfidantza gaituztea. Norberekeriak baztertuaz, bat gatozen alortetan lan egiteari lehentasuna ematea... Jarrera hauxe dugu egokiena herrian ilusio berriak piztu eta borrokarako gogoak suspertzeko. Posible ote? Bai noski. Akordio eta plangintza haundiak momentuz behintzat ahanziaz, has gaituzten elkarrekin eguneroko lanean. Hortan nabaritzen bait da nor den batasun zalea eta nor oportunistea.

TASIO ERKIZIA

HB-KO PARLAMENTARIA

Legearen 10 urteak

Euskaldunaren hizkuntz eskubideak

ORAIN dela bi urte argitaratu zuen "EKBK" titulu bereko liburua, euskaldunak bere bizitzako une bakoitzean euskaraz erabilitzeko aitortzen zaizkion edo etzazkion eskubideak gogora erazten dituen.

«Euskararen erabilpena arauzotzeko legeak» hamar urte bete dituen honetan, beharrezkoa da behin eta berriro euskaldunak euskaraz erabilitzeko eta euskaraz bizitzeko duen eskubidea aldarrikatzea.

Eskubide hori, ordea, ez da bakarkakoa, komunitarioa baizik, hizkuntza berez fenomeno kolektiboa delako. Norbanakoaren hizkuntz eskubideak aitortzea eta legez babestea, besterik gabe, gutiz abstraktua da, bere hizkuntzazko komunitarietatek gabe ez baita inork bere hizkuntzan komunikatzerik. Horregatik euskal komunitatea eratzera eta trinkotzera jo behar du euskararen aldeko legeak.

Bestalde, hizkuntza egitura hutsa da, giza kulturaren adierazpide ez baldin bada. Hizkuntz eskubideen aitortzea eta sustapena hu-

tsean geratzen dira, hizkuntza bereko kultur sustapena eta eskaintza segurtatzeko babes legal eta politikorik ezean, bere hizkuntzan kulturalki bizitzeko (kultura sortzeko, espresatzeko eta hartzeko) baliabiderik ez baldin badu hiztunak.

EAEko hizkuntz legearen oinarriko akats diskriminatzailea (Espainiako Konstituziotik bertatik datorkiona) gogoratzearekin batera, ezin dugu ahaztu nafarrak eta Iparraldekoak egoera legal askozak okerragoan eta beste euskaldunei buruz ere legez diskriminaturik daudela; eta euskararen normalizatzarako plangintza marko juridiko-instituzional bakkarren eske dagoela.

Lege honek euskararen babes eta sustapenerako erakunde eta ekimen instituzional batzuk sortzeko balio izan du; horien baligarratasuna eta ahalegina ukatu gabe ere, zoritxarez nabarmendu eta salatu beharokoak dira horren barruko kontradizioak, euskararen eta euskal kulturaren alde lehenagotik eta gerora

sorturiko erakunde eta ekimen sozialen dinamika eta lan gutiz garrantzikoak (AEK, Ikastolak, EGUNKARIA, etab) asumitzeko, babesteko eta bultzatzeko ez bait da gauza izan.

EAEko hizkuntz legea indarrean egin den urte hauetan, horrek aitortzen eta babesten dituen eskubideak ere benetan errespetatetik eta praktikan betietatik urrun daude oraindik. Horren aurrean hainbat erakunde publikoren ardurarik eza eta kontradizioa salatzeaz gain, herritarren axolagabatasuna eta azkurtasuna ere aitortu behar ditugu, gure eskubideak errespetatu eta beste eratzeko orduan.

Erakunde publikoen erantzunkizuna eta herritarren betekizuna dela uste dugu, euskaraz defenditza eta euskaldunak babestea, hasterko eskubidezkoak eta legezkoak direnetan.

PAULO AGIRREBALTZATEGI

EKB-KO LEHENDAKARIA

BERRIAKZIRI



AURORA BILBAO
Geroa Nukleoaren Prebentziorako Medikun. Elkarte-ko kidea
EL DIARIO VASCO

«Inguru-giroen hondatzeak gerrak eragin ditzake etorkizunean»



ANTON URIARTE
EHUko irakasle eta geografoa
EL MUNDO

«Antartikadako ozono zuloari buruzko informazioak alderdikiok dira. Fenomeno iraganekorra da, arriskurik gabea giza bizitzarentzat»



GONTZAL MENDIBIL
Euskal Kantaria
ARGIA

«Euskal Telebistak euskal kulturarekiko ardura bat duela uste dut, eta hori eskatu behar zaio»



MARI KARMEN GARMENDIA
Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia
EGIN

«Pausauk eman behar dira, baina euskaltzaleok etxe barrua sendotu behar dugu adostasuna lortzeko»

* Oharra: «...euskaltzaleok etxe berria eskuratu behar dugu adostasuna lortzeko» ostegunean oker plazaratutako M.K. Garmendiaren esaldia ostrialean jaso genuen sail honetan eta gaur argitaratutakoa da, beraz, zuzena.

ZAKILIXUT

© Olarraagak

